

Lan-legepeko hezitzaileak eta irakasleak

**B
A
T
Z
O
R
D
E

P
A
R
E
K
I
D
E
A**

2014ko urriaren 24a

1. Zeinu hizkuntzako interpreteen esleipena:

Zeinu hizkuntzako interpreteen esleipenean egondako irregulartasunen inguruan galdetzean, Administrazioak ez du inongo erantzukizunik hartu. Ikasle gorren matrikulazio momentu desberdinak daudela, prozesua oso konplexua dela eta aldagai asko daudela argudiatu zuten, modu honetara gaia itxitzat emanez. Orain langileek jarritako errekursoak aurrera jarraituko du eta honen erantzunaren zain geratzen gara.

2. Transkriptoreak:

STEE-EILASetik transkriptore eta material egokitzailen zerrendak irekitzea eskatu genuen. Administrazioak oraingoz ez du horretarako asmorik azaldu, oso lanpostu gutxi izanik "esperantza faltsuak" sortuko dituenaren aitzakiaz, nahiz eta une hauetan zerrenda agorturik egon.

3. Eibarreko esleipena ondoren sortutako HLEen beharrak:

Ikasturte honetan, irailean eta urrian ikasturte osorako lanpostu bat eskaintzeko telefonoz deitu dieten langileei ekainak 30 arteko kontratua egin dietela salatu genuen. Orain arte esleipena ondoren eskaintzen ziren kontratu mota hauek abuztuak 31 arteko iraupena zuten. Udako kobraketa eta puntuaketa ez daukan kolektibo batean ekainaren 30a arte kontratoak egiten hastea, alde bateko erabakiz, oso larria iruditzen zaigu.

Administrazioaren erantzuna izan da argitzeko modu bakararra "bide judiziala" jarraitzea izango litzatekeela, sententzia baten bidez.

4. 2014/15 ikasturteko langileen plantila:

Ikasturte honetako kolektibo guztien lanpostuen plantila eman ziguten. Ikasle kopuruaren datuak eskatuta ditugu baina ez dizkigute pasa. Administrazioak argi uzten du dauden baliabideak daudenak direla eta erantzuna ez dela beharren arabera emango.

5. Prestakuntza fondoa:

Aurten onartuak izan diren eskabideak aurkezten dizkigute.

6. Itinerantzien indemnizazioaren ordainketa:

Ibiltaritzarengatik indemnizazioak ordaintzeko irizpideak zehazteko akordioa sinatu genuen. Akordio honekin, desplazamendu guztiak indemnizatzea bermatzen da, azken ikasturteetan lehen desplazamendua indemnizatzeko zeuden arazoak konponduz.


7. LEP / OPE:

Gure sektorean ikasturte honetan LEPrak ez dela egongo argitu zigun administrazioak.

8. Beste zenbait gai:

Eztabaidatzeko beste zenbait gai geratzen dira, denbora faltagatik datorren ostirala urriak 31rako uzten dira.

STEE-EILAS



ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	NAFARROA
Eulogio Serdán, 5. behea 01012 – Gasteiz Telf.: 945 14 1104 Email: araba@stee-eilas.org	Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) 48003 – Bilbo Telf.: 94 410 02 98 Email: bizkaia@stee-eilas.org	Baso-txiki, 30-34 (atzekaldea) 20006 – Donostia Telf.: 943 46 60 00 gipuzkoa@stee-eilas.org	Joaquin Beunza, 4 - 6 31014 – Iruñea (Rochapea) Telf.: 948 21 23 55 nafarroa@stee-eilas.org